



EUSKO LEGEBILTZARRA
PARLAMENTO VASCO

2010EKO MARTXOAREN 18KO OSOKO BILKURAREN ERABAKIAK

1. (berria) Adierazpen instituzionala, Jean-Serge Nérin jendarmearen erailketa kondenatzeko. [09\11\05\00\0025]

- "1. Kondenatzea Jean-Serge Nérin jendarmearen erailketa, ETA erakunde terroristak Seine-et-Marne frantziar departamenduko Dammarie-les-Lys herrian burututakoa.
2. Jean-Serge Nérinen senitartekoei gure maitasuna, hurbiltasuna eta elkartasuna agertzea. Orobat gure elkartasuna adieraztea hildakoaren lankideei.
3. Euskal herritarrei dei egitea hilketa hori gaitzesteko egingo diren ekitaldi guztietan parte har dezaten".

2. (deialdiko 1. puntua) Lehenbailehen eztabaidatzeko Euzko Abertzaleak legebiltzar-taldeak egindako legez besteko proposamena, bat-bateko ziklogenesiak Euskadin izan dituen ondorioak arintzeko neurriei buruz. Eztabaida eta behin betiko ebazpena. [09\11\02\01\0265]

EA-NV, ES eta Mistoa-EA taldeek hitzartutako erdibideko zuzenketa onetsi da.

54/2010

- "1. Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio ekin diezaiela, Foru Aldundiekin eta kalteak izan dituzten udalerrietako udalekin batera, beharrezkoak diren jardueri, Aseguruen Partzuergoan eta Gobernuaren Azpiordezkaritzetan bideratzen ari diren prozeduren gestioa azkartze aldera, dagozkien aseguruak kobratzeko eta estatu-laguntzak tramitatzeko.

ACUERDOS DEL PLENO CELEBRADO EL 18 DE MARZO DE 2010

1. (nuevo) Declaración institucional de condena por el asesinato del gendarme Jean-Serge Nérin. [09\11\05\00\0025]

- "1. Condenar el asesinato del gendarme Jean-Serge Nérin, perpetrado por la organización terrorista ETA en Dammarie-les-Lys, en el departamento francés de Seine-et-Marne.
2. Mostrar nuestro cariño, cercanía y solidaridad a los familiares de Jean-Serge Nérin. También nuestra solidaridad a sus compañeros.
3. Hacer un llamamiento a la ciudadanía vasca a participar en todos los actos de repulsa que sean convocados".

2. (punto 1 de la convocatoria) Debate y resolución definitiva de la proposición no de ley para su debate urgente formulada por el grupo parlamentario Nacionalistas Vascos, relativa a las medidas para paliar los efectos de la ciclogénesis explosiva en Euskadi. [09\11\02\01\0265]

Aprobada la enmienda transaccional suscrita por los grupos NV, SV y Mixto-EA.

54/2010

- "1. El Parlamento Vasco insta al Gobierno Vasco a que, en coordinación con las diputaciones forales y ayuntamientos de los municipios afectados, acometa las actuaciones necesarias para agilizar la gestión de los procedimientos que se están sustanciando en el Consorcio de Seguros y las Subdelegaciones de Gobierno, a efectos del correspondiente cobro de seguros y tramitación de las ayudas estatales.





2. Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eta Foru Aldundiei eskatzen die, otsailaren 27ko ziklogenesiak eragin zien udalerri buruz Estatuko Administrazioak egingo duen balorazioaren berri izan ondoren, eta martxoaren 10eko 3/2010 Legearen arabera dagokien estaldura edo erabilgarri izan litezkeen bestelako laguntzak zehaztu ostean, ezar ditzatela, hala badagokio, behar bezala estalirik geratu ez diren izandako kalteak arintzen lagunduko duten neurri gehigarriak.
3. Edonola ere, Eusko Jaurlaritzak aztertuko du, kasu bakoitzean, abalen prozedurak ezartzeko aukera edo, salbuespen gisa, izandako kalteen larritasunaren arabera laguntza gehigarriak".
2. El Parlamento Vasco insta al Gobierno Vasco y a las diputaciones forales a que, una vez conocida la valoración que la Administración del Estado realice sobre los municipios vascos afectados por la ciclogénesis del pasado 27 de febrero, y determinada la cobertura que les corresponde en el marco de la Ley 3/2010, de 10 de marzo, y otras ayudas que pudieran concurrir, establezca en su caso, medidas de carácter complementario que contribuyan a paliar los daños ocasionados que no hayan quedado suficientemente cubiertos.
3. En todo caso el Gobierno Vasco estudiará, en cada caso, la posibilidad de establecer procedimientos de avales o, excepcionalmente, ayudas complementarias en función de la gravedad de los daños producidos".

3. (deialdiko 2. puntua) Mozioa, Jesus M. Larrazabal Antia Mistoa-Eusko Alkartasuna taldeko legebiltzarkideak aurkeztua, Praileaitz babestu beharrari buruz. Eztabaida eta behin betiko ebazpena. [09\11\03\00\0032]

3. (punto 2 de la convocatoria) Debate y resolución definitiva de la moción presentada por D. Jesus M. Larrazabal Antia, parlamentario del grupo Mixto-Eusko Alkartasuna, sobre la necesidad de proteger Praileaitz. [09\11\03\00\0032]

EA-NV eta ES taldeek hitzartutako erdibideko zuzenketa onetsi da.

Aprobada la enmienda transaccional suscrita por los grupos NV y SV.

"Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio, Praileaitz haitzuloa babesteko eskumena duen erakundea denez:

"El Parlamento Vasco insta al Gobierno Vasco, como institución competente en la protección de la cueva de Praileaitz:

1. 120/2007 Dekretua aldatzerakoan gogoan izan eta aintzaketat har ditzala Praileaitzi buruz orain arte lortutako txosten eta azterlan guztiak, Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura eta Euskara Departamentuko Ondarearen Zuzendaritzak atera eta bidalitako ondorioak barne.
2. Babes erabakigarria ezar dezala bai haitzuloaren bai pinturek eta seinaleek euskarri ditzuten bandera-itxurako eraketa estalagmitikoentzat, bitarteko teknikoek eta xedapen egokien bidez galaraziaz harrobiaren eraztze-jardueraren ondoriozko bibrazioen transmisioak beraiei eragin diezaien.
1. A contemplar y considerar en la modificación del Decreto 120/2007 todos los informes y estudios recabados hasta el momento en torno a Praileaitz, incluyendo las conclusiones extraídas y remitidas por la Dirección de Patrimonio del Departamento de Cultura y Euskera de la Diputación Foral de Gipuzkoa.
2. A establecer la protección determinante de la cueva y de las banderolas estalagmíticas sobre las que se encuentran las pinturas y señales, evitando por los medios técnicos y determinaciones más apropiadas que la transmisión de vibraciones por la actividad extractiva de la cantera les afecte.





3. Haitzuloa dagoen mendi-hegala modu erabakigarrian babes dezala, babestu beharreko kultura-ondasuna bere testuinguruan ulergarri egitearren, indarrean dauden legeetarik horretarako egokienak eta eraginkorrenak baliatuz".

4. (deialdiko 3. puntua) Mozioa, Arantza Aurrekoetxea Bilbao Euzko Abertzaleak taldeko legebiltzarkideak aurkeztua, Oinarrizko Hezkuntzako curriculumari buruz. Eztabaida eta behin betiko ebazpena. [09\11\03\00\0033]

Ezetsi egin da.

5. (deialdiko 4. puntua) Mozioa, Gorka Maneiro Labayen Mistoa-UPyD taldeko legebiltzarkideak aurkeztua, alokairuko etxebizitzaren programako atzerapenari buruz. Eztabaida eta behin betiko ebazpena. [09\11\03\00\0034]

ES eta ETP taldeek hitzartutako erdibideko zuzenketa onetsi da.

55/2010

"Eusko Legebiltzarrak:

1. Bat egiten du Euskadiko Etxebizitzaren aldeko Itun Soziala ekimenarekin.
2. Solaskideei eskatzen die sar dezatela, itunaren lehentasunen artean, alokairuko etxebizitza publikoa garatzea, gutxieneko helburua ondoko hau izanik: legegintzaldi honen amaieran % 40 lortzea.
3. Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio sar ditzala, itunaren ondorioen artean, erosteko aukera ematen duen alokatzea eta bera garatzeko ildo nagusiak. Ildo nagusi hauetan sartuko dira bai erosteko aukera erabili ahal izango den denbora bai azken salmenta-prezioaren kalkulua. Etxebizitza eskuratzeko sistema honek ez du ekarriko alokatzeko etxebizitzaren kopurua murriztea.
4. Eusko Jaurlaritzari eta udalei eskatzen die

3. A la protección determinante de la ladera donde se ubica la cueva, al objeto de hacer comprensible en su contexto el bien cultural a proteger, acudiendo a las legislaciones vigentes más adecuadas y eficaces a ese objeto".

4. (punto 3 de la convocatoria) Debate y resolución definitiva de la moción presentada por D.ª Arantza Aurrekoetxea Bilbao, parlamentaria del grupo Nacionalistas Vascos, relativa al currículo de Educación Básica. [09\11\03\00\0033]

Rechazada.


5. (punto 4 de la convocatoria) Debate y resolución definitiva de la moción presentada por D. Gorka Maneiro Labayen, parlamentario del grupo Mixto-UPyD, sobre retraso en el programa de vivienda de alquiler. [09\11\03\00\0034]

Aprobada la enmienda transaccional suscrita por los grupos SV y PV.

55/2010

"El Parlamento Vasco:

1. Apoya la iniciativa del Pacto Social de la Vivienda en Euskadi.
2. Insta a los diferentes interlocutores a incluir, como una de las prioridades de dicho pacto, el desarrollo de la vivienda pública en alquiler, con el objetivo de alcanzar, como mínimo, el 40 % al final de la presente legislatura.
3. Insta al Gobierno Vasco a incluir en las conclusiones del pacto el alquiler con opción a compra y las líneas generales de su desarrollo, que incluirán tanto el tiempo en el que se podrá ejercer la opción de compra, como el cálculo del precio final de venta. Dicho sistema de acceso a la vivienda no supondrá reducción de las viviendas destinadas al alquiler.
4. Insta al Gobierno Vasco y a los





berrazter ditzatela, aldian-aldian, alokairuko etxebizitza publikoen esleipenak, zertarako eta, berrazterketaren bidez, nahitaezko baldintzak kasu eta uneoro betetzen dituzten pertsoneri bideratzea lortzeko.

5. Eskatzen du zozketa-politikaren berrikustea sar dezatela itunean, kolektibo espezifikotarako aldez aurretik erreserbatutako etxebizitzak edukitze aldera. Era berean, etxebizitza babestuak esleitzeko prozeduran zenbait formula ezarriko dira esleipenak, beti, esleipendunen benetako etxebizitza-beharrei erantzuten dietela bermatzeko.
6. Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio bilkura-aldi honetan onar dezala 2010-2013 aldirako Etxebizitza Plana. Planak ituna negoziatzean lorturiko akordioei erantzungo die, eta bertan zehaztu beharko dira, gutxienez, etxebizitzak eraikiko diren lurzorua, egin beharreko jardunei buruzko egutegiaren aurreikuspena eta finantzaketa".

6. (deialdiko 5. puntua) Estatu mailako lurreko telebista digitalen estaldura zabaltzeko elkarlanean aritzeko Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta EUDEL-Euskal Udalen Elkartearen artean lankidetzeta-hitzarmena. Aralar legebiltzar-taldeak hitzarmen horren aurka aurkeztu duen aurkako proposamenari buruzko eztabaida eta behin betiko ebazpena. [09\18\01\00\0008]

Ez dela egoki kontra azaltzea.

ayuntamientos a revisar periódicamente las adjudicaciones de vivienda pública en alquiler, de modo que dicha revisión permita destinar la vivienda a las personas que cumplan, en todo caso, los requisitos exigidos.

5. Insta a incluir en el pacto una revisión de la política de sorteos, de forma que cuenten con unas reservas previas destinadas a colectivos específicos. Igualmente se establecerán fórmulas en la adjudicación de vivienda protegida que tiendan a garantizar que las adjudicaciones respondan, en todo caso, a la situación real de las necesidades de vivienda de los adjudicatarios.
6. Insta al Gobierno Vasco a aprobar el Plan de Vivienda 2010-2013 dentro del actual periodo de sesiones. Dicho plan responderá a los acuerdos alcanzados en la negociación del pacto y deberá contener, al menos, los suelos en los que se construirán las viviendas, una previsión del calendario de actuaciones a realizar, así como su financiación".

6. (punto 5 de la convocatoria) Debate y resolución definitiva de la propuesta de oposición presentada por el grupo parlamentario Aralar al convenio de colaboración con la Diputación Foral de Gipuzkoa y la Asociación de Municipios Vascos EUDEL para la extensión de cobertura de las televisiones digitales terrestres estatales. [09\18\01\00\0008]

No procede la oposición al convenio.





7. (deialdiko 6. puntua) Euzko Abertzaleak legebiltzar-taldeak egindako legez besteko proposamena, Kantauriko arrantza-espezie batzuetarako arrantza arduratsu eta jasangarriaren ziurtagiria lortzeari buruz. Eztabaida eta behin betiko ebazpena. [09\11\02\01\0223]

EA-NV eta ES taldeek hitzartutako erdibideko zuzenketa onetsi da.

55/2010

"Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio ahalbidetu dezala lehenbailehen eta datozen kanpainetarako, Euskadiko kofradietako erazketaren sektoreko ordezkariekin koordinatuta, Kantauriko antxoak, hegaluze eta berdelen arrantza arduratsu eta jasangarriaren ziurtagiriak lortzea, produktuaren balio erantsia eta jasangarritasuna handitzeko."

8. (deialdiko 7. puntua) Euskal Legebiltzar Talde Popularrak egindako legez besteko proposamena, Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren bultzada sozioekonomikoari buruz. Eztabaida eta behin betiko ebazpena. [09\11\02\01\0200]

EA-NV, ETP, Aralar eta Mistoa-EA taldeek hitzartutako erdibideko zuzenketa onetsi da.

56/2010

"1. Eusko Legebiltzarrak Euskadiko erakundeei eskatzen die, 1998an onetsitako Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren Jarduera Sozioekonomikoen Egokitzapenerako eta Garapenerako Egitarauaren arabera (JSEGE) eta egitarau hori ebaluatzeko 2008an egindako azterlanaren arabera, onetsi dezatela 2010. urtean zehar Urdaibaiko Garapen Iraunkorrerako Estrategia, horren bitartez, esku-hartze publikorako eta instituzionalerako prozesua burutu ondoren, haien helburuak eta konpromisoak eguneratzeko eta berraztertzeke.

2. Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eta Bizkaiko Foru Aldundiari eskatzen die

7. (punto 6 de la convocatoria) Debate y resolución definitiva de la proposición no de ley formulada por el grupo parlamentario Nacionalistas Vascos, relativa a la certificación de pesquerías responsables y sostenibles del Cantábrico para determinadas especies pesqueras. [09\11\02\01\0223]

Aprobada la enmienda transaccional suscrita por los grupos NV y SV.

55/2010

"El Parlamento Vasco insta al Gobierno Vasco a que, en coordinación con los representantes del sector extractivo de las cofradías del País Vasco y del transformador, posibilite en el menor tiempo posible y para las futuras campañas, la obtención de las certificaciones responsable y sostenible de las pesquerías de la anchoa, del bonito y del verdel en el Cantábrico, con el objeto de aumentar el valor añadido del producto y la sostenibilidad del mismo".

8. (punto 7 de la convocatoria) Debate y resolución definitiva de la proposición no de ley formulada por el grupo parlamentario Popular Vasco, relativa al impulso socio-económico de la Reserva de la Biosfera de Urdaibai. [09\11\02\01\0200]

Aprobada la enmienda transaccional suscrita por los grupos NV, PV, Aralar y Mixto-EA.

56/2010

"1. El Parlamento Vasco insta a las diferentes instituciones vascas, de conformidad con el Plan de Armonización y Desarrollo de Actividades Socioeconómicas (PADAS) aprobado en 1998 y la evaluación del mismo realizada en 2008, a aprobar dentro del año 2010 la Estrategia de Desarrollo Sostenible de Urdaibai, que actualice y revise los objetivos y compromisos de aquellos, previo el correspondiente proceso de participación pública e institucional.

2. El Parlamento Vasco insta al Gobierno Vasco y a la Diputación Foral de Bizkaia a





koordinatu ditzatela ahaleginak Urdaibain eragin handia izango duten planak eta azpiegitura-proiektuak legegintzaldi honetan zehar osatzeko, horiek garatzeko eta finantzatzeko egutegiak onetsiz. Horretarako, lurralde mailan antzeko garrantzia duten beste batzuen artean, lehentasuna emango zaio adostasunak lortzeari erreserba osoan saneamendu-lanak egiteko, Sollubeko eta Autzaganeko tunelak, trenbide-azpiegiturak, jarduera ekonomikoetarako lurzoruerreserbak eta herrietako sahiesbideak egiteko, trafikiko astunaren eragina gutxitu ahal izateko.

3. Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzaren Kultura Sailari eskatzen dio interes kulturalerako ondasuntzat, monumentu kategoriarekin, jotzeko egin zaizkion hainbat eskaerari erantzunez, babes dezala, alde aurretik espediente administratiboa betez eta dagozkion txosten teknikoen arabera, Ricardo Bastidak BBK-ko kolonietarako Sukarrietan egindako eraikina, edozein direla ere eraikin horri emango zaion erabilera edo finka horretan garatu ahal diren proiektuak".

9. (deialdiko 8. puntua) Euzko Abertzaleak, Aralar, Mistoa-Eusko Alkartasuna eta Mistoa-Ezker Batua Berdeak legebiltzar-taldeek egindako legez besteko proposamena, Palestinako lurralde okupatuetako giza eskubideei eta justizia unibertsaleko balioei buruz. Eztabaida eta behin betiko ebazpena. [09\11\02\01\0217]

Ezetsi egin da.

coordinar esfuerzos a fin de completar dentro de la presente legislatura planes y proyectos de infraestructuras con alta incidencia en Urdaibai, aprobando los calendarios de desarrollo y financiación de los mismos. A tal efecto, entre otros de similar importancia territorial, se dará prioridad al logro de los consensos para la ejecución del saneamiento en el conjunto de la reserva, de los túneles del Sollube y Autzagane, de las infraestructuras ferroviarias, de las reservas de suelo para actividades económicas y de las variantes de poblaciones, lo que permitirá la reducción del impacto del tráfico.

3. El Parlamento Vasco insta al Departamento de Cultura del Gobierno Vasco, atendiendo las diferentes demandas que se le han venido formulando para su declaración como bien calificado de interés cultural, con la categoría de monumento, a proteger, previo el expediente administrativo y si así se deduce de los informes técnicos correspondientes, el edificio de Ricardo Bastida dedicado a colonias de la BBK en Sukarrieta-Pedernales, cualesquiera que sean los nuevos usos a que pueda ser destinado o los proyectos que, en su caso, puedan desarrollarse en la citada finca".

9. (punto 8 de la convocatoria) Debate y resolución definitiva de la proposición no de ley formulada por los grupos parlamentarios Nacionalistas Vascos, Aralar, Mixto-Eusko Alkartasuna y Mixto-Ezker Batua Berdeak, relativa a los derechos humanos y a los valores de la justicia universal en los territorios ocupados de Palestina. [09\11\02\01\0217]

Rechazada.

